

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Behin betiko onespena ematea Vitoria-Gasteizko lurrazaleko aparkaldi arautuko zerbitzua (TAO) arautzen duen ordenantzaren aldaketari

2025eko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak hasierako onespena eman zion Vitoria-Gasteizko lurrazaleko aparkaldi arautuko zerbitzua (TAO) arautzen duen ordenantzaren aldaketari

Erabaki horren jendaurreko erakustaldian (2025eko ekainaren 2ko ALHAO, 62. zenbakia), erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ziren, eta udalbatzak 2025eko uztailaren 24ko aparteko bilkuran ebatzi zituen.

Era berean, bilkura horretan behin betiko onespena eman zion Vitoria-Gasteizko lurrazaleko aparkaldi arautuko zerbitzua (TAO) arautzen duen ordenantzaren aldaketari

Estatuko eta Autonomia-Erkidegoko administrazioei bidali zaie hartutako erabakia, eta, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro da, eta ez da errekerimendurik egin.

Beraz, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betetze aldera, testu oso argitara ematen da, indarrean jar dadin.

Erabaki honen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1. eta 46.1 artikuluen ildotik, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, egokitzen jotzen den beste edozein aurkezteko aukera gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko abuztuaren 20an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA

**ORDENANTZA, GASTEIZKO LURRAZALEKO APARKALDI
ARAUTUKO ZERBITZUA (TAO) ARAUTZEN DUENA****ATARIKOA****I. TITULUA. APARKALDI ARAUTUKO ZERBITZUAREN (TAO) XEDEA ETA
APLIKAZIO-EREMUA.**

1. artikulua. Xedea eta erregimen juridikoa.
2. artikulua. Aplikazio-eremua.
3. artikulua. Ingurumen-TAO.
4. artikulua. Definizioak.
5. artikulua. Aparkaleku-plaza baztertuak.
6. artikulua. Ibilgailu baztertuak.

**II. TITULUA. LURRAZALEKO APARKALDI ARAUTUAREN ZERBITZUAREN
ARAUAK.****I. KAPITULUA. Zerbitzuaren deskribapen orokorra.****1. atala. Espazioaren antolaketa.**

7. artikulua. Aparkaldi arautupeko (TAO) zonak.
8. artikulua. Aparkaldi arautupeko zonen mugaketa.
9. artikulua. Zona mugakideak esleitzea.
10. artikulua. Emisio Gutxiko Eremua (EGE).

2. atala. Zerbitzuaren ezaugarriak.

11. artikulua. Ohiko ordutegia.
12. artikulua. Ordutegi berezia.

II. KAPITULUA. Aparkaldi arautuaren erabilera.

13. artikulua. Erabiltzaile motak.
14. artikulua. Plaza motak.
15. artikulua. Plazen erabilera.

III. KAPITULUA. TAO gaitze-agiriak.

16. artikulua. TAO tiketak.
17. artikulua. TAO aparkatze-bereizgarria ematea.
18. artikulua. TAO aparkatze-bereizgarria izateko eskubidea galtzea.
19. artikulua. TAO aparkatze-bereizgarrien araubide orokorra.

III. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

20. artikulua. Zehapen-prozedura.

21. artikulua. Erantzukizuna.

22. artikulua. Zehatzeko eskumena.

23. artikulua. Arau-haustea.

24. artikulua. Zehapenak.

I. XEDAPEN GEHIGARRIA.- Elkarreragingarritasuna.

II. XEDAPEN GEHIGARRIA.- Arau-hauste eta zehapenen taula.

III. XEDAPEN GEHIGARRIA.- Datu pertsonalen babesa.

IV. XEDAPEN GEHIGARRIA.- Salbuespeneko egoerak.

V. XEDAPEN GEHIGARRIA.- Gremio profesionalen eta langile autonomoen kolektiboarentzako TAO bereizgarriari aplikatu beharreko tasa.

XEDAPEN IRAGANKORRA. Landa-eremuko bizilagunentzako gaitze agiri berezia.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

AZKEN XEDAPENETAN I.a.- Ordenantza aldatzea.

AZKEN XEDAPENETAN II.a.- Argitalpena eta indarrean sartzea.

I. ERANSKINA. TAO zona bakoitzeko kale eta atarien zerrenda, aparkatzeko bereizgarria emateko.

II. ERANSKINA. kale eta atarien zerrendaren aldaketa jasotzen da, 2027ko irailaren 15ean Emisio Gutxiko Eremuaren bigarren fasea abian jartzearen ondorioz.

III. ERANSKINA. Ordenantza honen eraginpeko ekonomia-jardueren gaineko zergaren (EJZ) epigrafeak.

ATARIKOA**I.**

Botere publikoen betebeharrak nagusi eta garrantzitsuena da bizitzeko eskubidea oinarritzakoa eta pertsonen osasunerako eskubide konstituzionala babestea, horiek baitira gure Konstituzioak eta gainerako ordenamendu juridikoak bereziki babesten dituzten ondasun juridikoak, bai eta gainerako oinarritzko eskubide eta eskubide indibidual guztien ondorio ere.

Hiri-mugikortasun jasagarriak bateragarri egiten ditu eskubide indibidualak eta pertsonen osasuna eta osotasun fisikoa babestea, bide-segurtasunaren eta airearen kalitatea hobetzeko zein hiri-ingurumena babesteko neurrien bitartez.

Herritarren elkarbizitza bitarte, espazio publikoak eskubide eta askatasunak baliatzeko aukera ematen du. Ikuspegi horretatik, mugikortasuna eta beti baliotsu bezain mugatua den hiri-espazio publikoa erabilera dira herritarrek bizikidetzaz soziala garatzeko duten tresna garrantzitsuenetako bat, zein erabili behar baita, horrez gain, jarduera ekonomikoaren garapena eta aurrerapen sozial eta tekniko bideratzeko ere, betiere ingurumen- eta energia-ikuspegitik eramangarria izango den molde batean, alegia, bizitzeko eta osasunerako eskubideen babesarekin guztiz bateragarria den molde batean.

II.

Ordenantza hau Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ("Erregulazio onaren printzipioak") jasotzen den erregulazio onaren printzipioei jarraikiz osatu da; hauxe dio artikulua horrek:

"1.- Legegintza-ekimena eta erregelamendu-ahala baliatzean, administrazio publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute: beharrezkotasuna, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Zioen azalpenean edo atarikoan —lege-aurreproiektua den edo erregelamendu-proiektua— behar bezala justifikatu beharko da printzipio horiei lotzen zaiela".

Bereziki, premia- eta eraginkortasun-printzipioak betetzen dira, hura onestea jotzen baita tresnarik egokientzat lortu nahi den helburua lortzeko; izan ere, lurrazaleko aparkatze-jarduera arautzea —bai eta emakida-erregimenean egoiliarrentzako aparkalekuak arautzea ere— berebiziko garrantzidun gaia da herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, eragin nabarmena baitu hirian, bizikidetzaz ordenatu eta baketsuko leku izan nahi duen horretan. Trafikoa eta, —horrenbestez— baita aparkatzea ere, elementu garrantzitsua dira hiriko oreka globalean; beraz, modu harmoniatzuan arautu behar da zirkulazioa, kolapsatuko ez bada.

Ordenantza eta erregelamenduak toki-erakundearen arau-tresnak dira, horien bitartez gauzatzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikulua aitortzen dien erregelamendu-ahala.

Proportzionaltasun-printzipioa betetzat jotzen dugu, ordenantzan ez delako arauarekin erantzun nahi zaion premiari erantzuteko erregulazio ezinbestekoa baino jasotzen; izan ere, egiaztatu da aurretiaz ez dagoela eskubide-murrizketa txikiagorik dakarren beste neurririk, edo hartzaileei betebeharrak gutxiago ezartzen dienik.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatuta dago, araua gainerako ordenamendu juridikoarekin koherentea den aldetik: hantxe bertan integratzen da, eta hura bera du sorburu.

III.

Jakina denez, udalerriek araugintza-ahala dute, haren bidez esleituta dituzten eskumenak garatzeko, betiere Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.a) eta 84.a) artikuluen —besteak beste— babesean. Zirkulazioaren antolamenduaren esparruan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 g) artikulua udalerrii eskumen propioa aitortzen die arlo honetan: "g) Trafikoa, ibilgailuak aparkatzea eta mugikortasuna [...]". Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. eta 38.4 artikuluetan xedatutakoan dago ahalmen generiko horren berrespen espezifiko; hauxe diote, hitzez hitz:

7. artikulua. Udalerrien eskumenak.

Udalerrii hauek dagozkie:

a) Beren titulartasuneko hiri barruko bideetan trafikoa arautzea, antolatzea, kudeatzea, zaintzea eta diziplina ezartzea, beren agenteen bitartez, bai eta bide horietan egindako arau-hausteak salatu eta zehatzea ere, betiere hori ez badu beste administrazio batek berariaz esleituta.

b) Hiri barruko bideen erabilera arautzea zirkulazioko udal-ordenantzen bidez, aparkalekuak erabiltzaile guztien artean berdintasunez banatzeko, ibilgailuen zirkulazioaren arintasuna eta kaleen oinezko erabilera kaltetu gabe, bai eta aparkaldi mugatuko neurriak ezartzea ere, aparkalekuak txandaka erabil daitezen bermatzeko, bereziki aintzat hartuta desgaitasun baten ondorioz mugikortasuna urrituta duten eta ibilgailuak erabiltzen dituzten pertsonen premiak, pertsona horiek gizarteratzen laguntzeko.

c) Hiri barruko bideetako ibilgailuak ibilgetzea, ibilgailuok aparkaldi mugatuko eremuetan aparkatzea baimentzen duen titulurik ez daukatenean edo baimendutako denbora gainditzen dutenean, harik eta ibilgailuaren gidaria identifikatzen den arte. Ibilgailuak hiri barruko bideetatik kentzea eta gordailuan uztea, zirkulazioa oztopatzen edo zailtzen badute, zirkulaziorako arriskua sortzen badute, edo aparkaldi mugatuko eremuetan gaizki aparkatuta badaude, betiere ibilgailuak ibilgetzeko artikulua honetan ezarritako baldintzak betez. Bizikletak kendu eta gordailuan uzteko eskumena dute, baldin eta abandonaturik badaude edo, lotuta egonik, ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatzen badute edo hiri-altzariak hondatzen badituzte.

39. artikulua. Gelditzea eta aparkatzea; arau orokorrak.

"[...] 4. Hiri barruko bideetan gelditzeko eta aparkatzeko araubidea udal-ordenantzen bidez arautuko da, eta horien bidez, zirkulazioa ez oztopatzeko behar diren neurriak har daitezke, hala nola aparkaldiaren iraupena mugatzeko ordutegiak, bai eta neurri zuzentzaile zehatzak ere; besteak beste, ibilgailuak bidetik kentzea edo ibilgetzea, baldin eta aparkaldi mugatuko eremuetan aparkatzea baimentzen duen titulurik ez badute edo baimendutako iraupena gainditzen badute, harik eta gidaria identifikatzea lortzen den arte."

Horren harira, adierazi behar da udalak eskumena duela, parametro horien barruan, bere titulartasuneko bide publikoetan ibilgailuak aparkatzeko alorrean egoki irizten dion eran arautzeko. Diskrezio-ahal horrek berekin dakar, nahitaez, botere publikoaren jardueran aukera zehatz eta jakin bat balioesteko inguruabar bereziak aintzat hartu beharra. Hala, erregelamenduak egiteko ahalak esan nahi du bat aukeratu behar dela; aintzat hartuta aukera posible horiek ezin direla formula finko eta arautu jakin batzuetara mugatu; aitzitik, horien kudeaketak diskrezionalitateak ahalbidetzen duen teknikaren egokitasunaren balioespen subjektiboa bilatzen dute.

Ordenantza hau, beraz, bete-betean egokitzen zaio arau-sistemari edukiari eta izapidetze-prozedurari dagokienez; ziurtasun- eta segurtasun-tresna izan dadila lortu nahi da, bai eta herritar guztiengana iritsi dadin ere.

Gainera, gardentasun-printzipioaren arabera, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ("Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea" izenekoan) jasotako agindua betetze aldera —betiere ordenantza-aurreproiektua egin aurretik—, kontsulta publiko bat bideratu da Udalaren webgunearen bitartez, gai hauei buruz: ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak; arau hori onestearen beharra eta egokitasuna; arauaren helburuak; eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

IV.

2021-2025 aldirako Gasteizko Mugikortasun Jasangarriaren eta Espazio Publikoaren Planak bi ikuspegitik aztertzen du Gasteizen aparkatzearen auzia: batetik, galtzadan zein galtzadatik kanpo dauden aparkaleku-plazen eskaintza aztertzen du, eta, bestetik, egoiliarren zein bisitarien plaza-eskaria. Galtzadan aparkatzeak plaza-tipologia handia du, baina bi multzotan laburbil daiteke: plaza arautuak eta arautu gabeak. Azken horiek —plaza orokor deitzen zaie—, ibilgailua ordutegi-erregulazio tarifikaturik gabe eta askatasun osoz aparka daitekeen espazio guztiak dira; gaur egun, galtzadan dauden plaza guztien % 76,2 dira.

Horrez gain, Gasteizko 2021-2025 aldirako Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planak superetxadien ereduari (zein superetxadi zentral baten inguruan egituratzen baita) sakontzea aurreikusten du. Superetxadi zentral horrek badu dagoeneko trafiko-murrizketarik; besteak beste, kameren bidezko sarbide-mugak daude Zabalgunean, eta zamalanetarako zirkulazio mugatua Alde Zaharreko zenbait kaletan. EGEaren perimetroa bat dator MIEPPen aurreikusitako superetxadi zentralaren perimetroarekin. Horrez gain, MIEPPen jardunbideen artean EGE bat ezartzea jasotzen da, eta horren irismena aztertzeko eta garatzeko azterlan bat egitea.

2022ko ekainean, «Gasteiz hirian Emisio Gutxiko Eremu (EGE) bat zehaztu eta diseinatzeko azterlana» egin zen. Azterlan horretan, EGEaren barruan Egoiliarren Lehentasuneko Eremu bat (ELE) sortzea aurreikusten da, erdiko superetxadiarekin bat datorrena, eta, ondoren, ingurumen-arloko TAO eremua sortzea eta handitzea. Azterlan horretan EGEaren hainbat faktore sozioekonomikori buruzko karakterizazioa egiten da, aurreikusitako neurriek trafikoan izan dezaketen eragina aztertzen da, eta gas kutsatzaileen emisioen murrizketa zenbatesten du.

Azkenik, eta aurrekoaren ondorioz, Gasteizko hirian Emisio Gutxiko Eremu bat ezartzeari buruzko ordenantza onartu du Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak, 2025eko martxoaren 21ean. Ordenantza hori 2025eko irailaren 15ean jarriko da indarrean; nolanahi ere, 2026ko irailaren 15era arte atzeratuko da Egoiliarren Lehentasuneko Eremuaren ezarpena. Hori dela eta, ordenantza honek ingurumen-TAO delakoa sortzea aurreikusten da, Emisio Gutxiko Eremuan dauden TAO zonetan aplikatzekoa, zeinak berariazko erregulazioa izango baitu zenbait gai jakinetan.

Arestian azaldutakoa aintzat hartuta, ordenantza hau bat dator, artikulatu guztietan, Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren 2021-2025 Planean ezarritako aurreikuspen eta irizpideekin.

V.

Efizientzia-printzipioari dagokionez, ordenantza honek laburtu, sinplifikatu eta arindu egiten ditu administrazio-prozedurak eta izapide materialak, segurtasun juridikoa eta herritarren bermeak kolokan jartzen ez dituen arteraino, eta baztertu egiten ditu alferrikako edo erredundantzetzat jotakoak oro.

Gainera, ez dakar alferrikako karga administratibo edo osagarriarik, eta arrazionalizatu egiten du baliabide publikoen kudeaketaren aplikazioa.

Interes publikoari erantzun nahi zaio lurrazaleko aparkaldiari buruzko erregulazioa aldatuz; hizpide dugun gaiari dagokionez, honela laburbiltzen da interes publikoa: aparkatzeko espazio publikoa modu arrazional eta ekitatiboan banatu nahi da hura eskatzen duten pertsona guztien artean, bide publikoan aparkaleku- plazak erregulartasunez txandakatzen direla bermatuz eta egoiliarren, gremioen eta profesionalen aparkalekuen erabilera erraztuz.

VI.

Lurrazalean aparkatzea arautzen duen ordenantzaren aldaketa justifikatuta dago — araudi berriaren alderdi guztietan justifikatu ere—, lurrazalean aparkatzeko plaza mugatuen kopurua handitzeko beharrak, hartara aparkaleku-plazen erabilera txandakatua areagotu ahal izateko, eta, horren ondorioz, eragindako kolektibo mota guztiei erabilera ekitatiboa bermatu ahal izateko. Ildo horretan, lurrazalean erregulatutako aparkaldi arautua zabalduko den zonetako bizilagunek zabalitze hori egiteko eskatu diote Udalari, beren bizilekuen ondoko zonetan aparkatzeko beharrari erantzun diezaion. Bestalde, gremio profesionalen eta langile autonomoen kolektiboak ere eurentzako ere TAO sistema bat sortzea eskatu dute, lantokitik gertu aparkatzeko aukera eta lanerako behar duten materialaren zamaanak errazteko. Bestalde, zamaanetarako guneak kontrolatu behar direla ikusi dugu, ibilgailuak txandaka aparkatuko dutela eta, hartara, plazen erabilera ekitatiboa izango dela bermatzeko. Horren ondorioz, ordenantza honek zamaanetarako TAO tiketa arautuko du, birtuala zein fisikoa. Gainera, Gasteizen Emisio Gutxiko Eremua ezartzeak lurrazaleko aparkaldi mugatua arautzen duen ordenantza aldatu beharra eragin du, hain zuzen ere Emisio Gutxiko Eremua arautzen duen ordenantzaren ondoriozko aldaketan arabera. Azkenik, lurrazaleko aparkaldi mugatua kontrolatzeko sistemen modernizazioak bereizgarri birtuala ezartzeko aukera ematen du; horrek ondorio positiboak ditu herritarrentzat, Udalarentzat eta ingurumenarentzat.

VII.

Ordenantza honek 24 artikulua ditu, hiru titulutan banatuta; horrez gain, bost xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, bi azken xedapen eta hiru eranskin ditu.

Lehen tituluan TAOren aparkaldi arautuko zerbitzuaren (TAO) xedea eta aplikazio-eremua jasotzen dira, bai eta aurrerago Ingurumen-TAO delakoa ezarri ahal izateko aurreikuspena ere.

Bigarren tituluan, lurrazaleko aparkaldia arautzen da: TAO zona berriak sortu dira eta lehendik dauden beste batzuk handitu; gainera, TAO / EGE zona berri bat sortu da, Emisio Gutxiko Eremua ezartzeko lehen faseari dagokiona, alegia. Fase hori 2025eko irailaren 15ean jarriko da indarrean, eta horrek lehendik dauden zonak berrantolatzea (birzonifikatzea) eta horiei dagokien erregulazioa egin beharra dakar berekin. Era berean, erabiltzaile-kolektibo mota berriak sortu dira, esaterako langile autonomoen kolektiboa. Horiek TAO bereizgarri espezifiko bat lortu ahal izango dute, zein ordenantza honetan arautzen baita, kolektibo horren aparkatze-arazoa arintzeko asmoz. Bereizgarri horren bidez hiriko TAO zona guztietan aparkatu ahal izango dute.

Horrez gain, zamaanetarako aparkaleku-gunen erabilera arautzen da bigarren tituluan, halako moldez non zamaanetarako TAO guneetan nahitaezkoa izango baita zamaanetarako TAO tiket fisikoa edo birtuala —baina beti doakoa— lortzea.

Ordenantzaren aldaketak beste berrikuntza bat dakar berekin: gaitze-agirian adierazitako ordu-muga gaitzeagatik salatuek ez dute aurrerantzean denbora gaitditua ordaintzeko aukerarik izango, kendu egingo baita aukera hori.

Azkenik, hirugarren tituluak arau-hausteen eta zehapenen araubidea xedatzen du.

Hauxe da arlo hori buruzko araudia: 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra, nahitaez bete beharrekoak arau-haustek ezartzeko orduan, nahiz eta horrek ez duen eragozten lege-corpus horretan oro har jasotzen diren arau-hausteei buruzko zehaztapen bereziak ezartzea.

Xedapen iragankorrean landa-eremuko biztanleentzako gaitze agiri berezia arautzen da.

I. xedapen gehigarriak administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna jorratzen du, hala eskatzen baitu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak.

II. xedapen gehigarriak arau-hausteen eta zehapenen taula jasotzen du.

III. xedapen gehigarriak datu pertsonalen babesa jorratzen da.

IV. xedapen gehigarriak salbuespeneko egoeren auzia jorratzen du.

V. xedapen gehigarriak gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboko TAO bereizgarriari aplikatu beharreko tasa jasotzen du.

Xedapen indargabetzaileak indargabetu egingo du Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantzen 10. artikulua, baita horrek izandako aldakuntzak ere, eta ordenantza honen kontra egiten duten maila bereko nahiz beheragoko xedapenak oro.

Azken xedapenetan I.ak ordenantza honen aldaketa jorratzen du.

Azken xedapenetan II.ak legea indarrean jartzeko data zehazten du.

I. eranskinean TAO zona bakoitzeko kale eta atarien zerrenda jasotzen da, aparkatzeko bereizgarria emateko.

II. eranskinean kale eta atarien zerrendaren aldaketa jasotzen da, 2027ko irailaren 15ean Emisio Gutxiko Eremuaren bigarren fasea ezartzearen ondorioz.

III. eranskinean Ordenantza honen eraginpeko Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) epigrafeak zedarritzen dira.

I. TITULUA. APARKALDI ARAUTUKO ZERBITZUAREN (TAO) XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.**1. artikulua.- Xedea eta erregimen juridikoa.**

Hiritan ibilgailu automobilak ugaltzeak berekin ekarri duen ondorioetako bat dugu bide publikoan horiek aparkatzeko lekua nahikoa ez izatea, gidarien eskari gero eta handiagoari erantzun ahal izateko.

Hori dela eta, aparkalekuak erregulatzeko zerbitzu publikoa eskaintzen da duela hainbat urtetik hona hiri askotan, espazio hori ibilgailu kopuru handiago batek erabili ahal izan dezan; horrenbestez, aparkalekuak okupatzen dituzten ibilgailuen txandakatzeko-maiztasuna handitzen da, erabiltzaileen egonaldiak mugatzearen eta erabilera pribatiboagatik tasa bat ezartzearen bitartez. Zerbitzu publiko hori eskaintzen da, lehenik eta behin, eragindako guneetan bizi diren pertsonen bizilekueetatik ahalik eta hurbilen dituzten aparkaleku-plazetan aparkatzen laguntzeko.

Hain zuzen ere, Gasteizko Udalak (aurrerantzean "Udala") aparkaldi mugatuko aparkaleku-plazatzat jotzen dituen lurrazaleko aparkalekuen erabilera erregulatzeko arauak finkatzea du xede ordenantza honek.

Jabari publikoko ondasunen erabilera komun berezia da ibilgailuak bide publikoan aparkatzea, eta ordenantza honen eta jabari horri dagozkion bestelako arauen ildotik emango da horretarako baimena.

Aplikatzekoak diren arauen artetik, hauek nabarmendu beharra dago:

- Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinen bitartez Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onetsi baitzen.
- 1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazio Araudi Orokorra onartzen duena (aparkaldi mugatua).
- Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantza, Udalbatzak 2013ko azaroaren 29an onetsia.

Edo horiek aldatu nahiz ordeztzen dituzten xedapenak.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Ordenantza honen xedea da lurrazaleko aparkaldi arautuko udal-zerbitzua (TAO) arautzea, zein I. eranskinean mugatutako eremuan indarrean jarriko baita, eta 2027ko irailaren 15etik aurrera, baita II. eranskinean mugatutako eremuan ere.

2. Lurrazaleko aparkamendu arautuko zerbitzua (TAO) tokiko zerbitzu publikoa da, zeinaren xedea erabilera ekitatibo baten bidez berez urria den ondasun bat (aparkatzeko guneak) optimizatzea baita. Horretarako, aparkatzeko gehieneko denbora-tarteak finkatzen dira, aparkaleku-plazetan ibilgailuak txandaka daitezela lortzeko; horrez gain, plaza horien erabilera eskariaren arabera definitzen da eta, hartara, mugikortasun jasangarria sustatzen da.

3. artikulua.- Ingurumen-TAO.

Udalak errekarquak, hobariak eta/edo salbuespenak aplikatu ahal izango ditu lurrazaleko aparkaldi arautuko zerbitzuaren tasetan, bai eta egoiliarren, merkatarien, eta profesionalen zein langile autonomoentzako TAO bereizgarriak

lortzeko tasetan ere, aintzat hartuta ibilgailuaren ingurumen-bereizgarria. Tasa horiek Ibilgailuak bide publikoan araututako esparruetan aparkatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean zehaztuko dira.

4. artikulua.- Definizioak

Ordenantza hau interpretatzeko, definizio hauek baliatuko dira:

Baimena: Gaitze-agiria lortzeak ematen duen aparkatzeko baimena.

Zona mugakide esleitura: Aparkatzeko zona gehigarria, norberari dagokion TAO zonarako aparkatze-bereizgarriak baimentzen duena.

Gaitze-agiria: TAO zonetan aparkatzeko aukera ematen duen agiri fisiko edo birtuala.

Aparkatzeko bereizgarria: Gaitze-agiri birtuala, udalak ezaugarri berezi jakin batzuen kariaz lurrazaleko aparkalekuaren zenbait erabiltzailerari emana, espazio horiek erabiltzeko gaitzen duena. Besterik xedatu ezean, gaitze-agiria zein urterako eman den, eta urte hori amaitu artekoa izango da agiriaren indarraldia.

Doako tiket fisikoa: Gaitze-agiria, Udalak horretarako jarritako makinetan eskuratua, ibilgailua ordenantza honetan araututako TAO zonetan denbora mugatu batez aparkatzea ahalbidetzen duena.

Doako tiket birtuala: Gaitze-agiria, Udalak horretarako prestatutako sistema telematikoen bidez lortua, ibilgailua ordenantza honetan araututako TAO zonetan denbora mugatu batez aparkatzea ahalbidetzen duena.

Tiket fisikoa: Gaitze-agiria, Udalak horretarako jarritako makinetan eskuratua, ibilgailua ordenantza honetan araututako TAO zonetan denbora mugatu batez aparkatzea ahalbidetzen duena, dagokion tasa ordaindu ondoren.

Tiket birtuala: Gaitze-agiria, Udalak horretarako prestatutako sistema telematikoen bidez lortua, ibilgailua ordenantza honetan araututako TAO zonetan denbora mugatu batez aparkatzea ahalbidetzen duena, dagokion tasa ordaindu ondoren.

Zamalanetarako TAO tiket fisikoa: Gaitze-agiria, Udalak horretarako jarritako makinetan eskuratua, ibilgailua ordenantza honetan araututako TAO zamalanetarako zonetan denbora mugatu batez aparkatzea ahalbidetzen duena.

Zamalanetarako TAO tiket birtuala: Gaitze-agiria, Udalak horretarako prestatutako sistema telematikoen bidez lortua, ibilgailua ordenantza honetan araututako TAO zamalanetarako zonetan denbora mugatu batez aparkatzea ahalbidetzen duena.

Emisio Gutxiko Eremua (EGE): Udalak Emisio Gutxiko Eremua bat ezartzeari buruzko ordenantza mugatutako eremu jakin bat, ibilgailu motordunekin sartu eta zirkulatzeko nahiz hura aparkatzeko murrizketak ezartzen baitira, airearen kalitatea hobetzeko eta berotegi-efektuko gasen isuriak arintzeko xedez, betiere aintzat hartuta indarrean den Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean isuriaren arabera osatutako ibilgailu motordunen sailkapena.

Zamalanetarako TAO gunea: TAO zonen barruan barruan dauden aparkaleku-plaza (bakanak edo hainbat batera) edo -gunek, zamalanetarako bakarrik erabiltzekoak, eta seinale bertikalen bidez mugatuak, non nahitaezko tiketa eskatuko baita; horrenbestez, ordenantza honen erregulazioaren barruan daude.

Zamalanetarako TAO EZ gunea: TAO zonen barruan dauden aparkaleku-plazak (bakanak edo hainbat batera) edo -gunek, zamalanetarako bakarrik erabiltzekoak, eta seinale bertikalen bidez mugatuak, non ez baita nahitaezko tiketik eskatuko; horrenbestez, ordenantza honen erregulazioatik kanpo daude.

Zamalanetarako EGE gunea: haren ordenantza arautzaileak mugatutako Emisio Gutxiko Eremu barruan dauden aparkaleku-plazak (bakanak edo hainbat batera) edo -guneak, zamalanetarako bakarrik erabiltzekoak, eta seinale bertikalen bidez mugatuak, non ez baita nahitaezko tiketik eskatuko; horrenbestez, ordenantza honen erregulazioatik kanpo daude.

Egoiliarra: udal-errolaren arabera bizilekua TAO zonaren batean duen pertsona fisikoa.

Bisitaria: TAO zonaren batean bizi ez den pertsona fisiko edo juridikoa. Halaber, bisitaritzat joko da aparkatze-bereizgarria duen egoiliarra, zona mugakide esleietatik kanpo aparkatzen duenean.

Egoiliarren Lehenetsuneko Eremua (ELE): Hala deitzen zaie hirigune jakin batzuei —EGE baten barnean daudela zein ez—, zeinetan ez-egoiliarrei ibilgailu motordunekin sartzeko, zirkulatze eta aparkatzeko murrizketa-neurriak aplikatzen baitzaizkie, hartara gune horietako bideen erabilera zaintzeko eta kutsadura akustiko zein atmosferikoaren mailak gutxiarazteko asmoz, baina hornikuntza eta zerbitzuetako ibilgailu motordunei eremu horietan sartzearagotzi gabe, beharrezkoak diren aldetik.

5. artikulua.- Aparkaleku-plaza baztertuak.

Ordenantza honek arautzen duenetik bazter utzi dira, berariaz, erabilera berezi hauetarako erreserbatutako aparkaleku-plazak:

- Autobus- eta taxi-geralekuak.
- Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazak, behar bezala seinaleztatuak.
- Baimendutako ibilgailuei gordetako plazak, behar bezala seinaleztatuak.
- Aparkatzeko erreserba pribatiboak, behar bezala seinaleztatuak.
- Zirkulazioa debekatuta dagoen gunek (oinezkoentzako gunek), debeku-orduetan, baldin eta halako ordutegiaren menpe badaude.
- Zamalanetarako TAO EZ gisa seinaleztatutako aparkaleku-plazak, horretarako ezarritako ordutegiaren barruan.
- Zamalanetarako EGE barruko aparkaleku-plazak, horretarako ezarritako ordutegiaren barruan.
- Ibilgailu elektrikoentzako kargaguneak.

6. artikulua.- Ibilgailu baztertuak.

Ordenantza honek arautzen duenetik bazter utzi dira, berariaz, ibilgailu hauek:

- Motozikletak, bi edo hiru gurpileko ziklomotorrak eta kuartriziklo arinak.
- Beren kategoriarako edo jarduerarako erreserbatutako gunetako aparkatutako ibilgailuak, zeinetan ez den —seinale bertikalak bitarte— nahitaez tiketa ipini beharrik eskatzen.
- Taxiak, baldin eta gidaria ibilgailuaren barruan badago, edo erabiltzaileei bertara sartzen laguntzen ari bada.
- Administrazio publikoen menpeko ibilgailuak, behar bezala identifikatuta daudela; Udalak horretarako sortutako ibilgailu salbuetsien erregistroan inskribatuta egon beharko dute aurretiaz.

- Herritarren segurtasunarekin nahiz babesarekin zerikusia duten ibilgailuak; Udalak horretarako sortutako ibilgailu salbuetsien erregistroan inskribatuta egon beharko dute aurretiaz.
- Administrazioak Mugikortasun Urriko Pertsonentzako emandako aparkatze-txartela ikusgai duten ibilgailuak, baldin eta txartela indarrean bada, betiere txartelaren titularrak aparkatzen badu nahiz beste norbaitek titular hori hartan garraiatu badu edo garraiatzekotan bada, dela okupatutako aparkaleku-plaza arautura, dela handik beste nonbaitera.
- Udalak berariaz baimendutako eta dagokien egiaztagiria erakusten duten ibilgailuak.
- Larrialdiko edo etxez etxeko osasun-laguntzarako ibilgailuak, behar bezala identifikatuta daudela, eta zerbitzu aktiboa ematen; Udalak horretarako sortutako ibilgailu salbuetsien erregistroan inskribatuta egon beharko dute aurretiaz.

II. TITULUA. LURRAZALEKO APARKALDI ARAUTUAREN ZERBITZUAREN ARAUAK.

I. KAPITULUA. ZERBITZUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA.

1. atala. Espazioaren antolaketa.

7. artikulua.- Aparkaldi arautupeko (TAO) zonak.

Udal-agintaritzak eskudunak zehaztuko ditu Ordenantza honetan xedatzen denaren ildotik arautuko diren aparkaleku-plazak. TAO zona berriei dagokienez, egoiliar eta merkatariarentzat erreserbatuko da aparkaleku-plaza kopururik handiena, kolore berdeko marrekin mugatuta.

Geografikoki ezarriko da erregulazioa. Horretarako, hainbat TAO zona zehaztuko dira, eta, horien barruan, ordenantza honetan aparkatzeari dagokionez finkatzen diren mugei lotuta egongo dira bide publikoko lurrazaleko aparkaleku-plaza guztiak, bi kasu hauetan daudenak izan ezik: batetik, ordenantza honen 5. artikuluan baztertutakoak, eta, bestetik, seinaleztapen bertikalaren bitartez berariaz kontrako bidetik kudeatutakoak.

Ordenantza honen erregulaziotik salbu utzi ahal izango ditu Udalak TAO zonen barruan zenbait aparkaleku-plaza, horietan ordenantza honetan jaso gabeko erregulazio bereziren bat ezartzeko xedez.

8. artikulua.- Aparkaldi arautupeko zonen mugaketa.

Arauzko seinaleen bidez adieraziko dira TAO zona bakoitzaren mugak, zona horietako bakoitzaren sarreran edo aparkaleku-guneen hasieran (R-309 seinalearen bidez); gainera, panel osagarri bana erantsiko zaie seinaleei, zenbaki edo letra bat eramango duena, zein TAO zona den adierazteko. Eredu horietako bakoitzean, ordenantza honetan zehaztutako pribilegioak izango dituzte bertakotzat jotako egoiliar edo merkatari guztiak, bai zona mugakide esleitukotzat jotakoak ere.

Ordenantza honetan arautzen den esparru osoaren perimetroko irteerak ere seinaleztatuko dira (R-504 seinalearen bidez).

9. artikulua. Zona mugakideak esleitzea.

Ordenantza honen ondorioetarako, honako hauek joko dira zona jakin baten zona mugakide esleitutzat:

- EGEko zonak:
 - 0A ZONAREN zona mugakide esleituak: 0B / 0C / 1A / 1B / 1E
 - 0B ZONAREN zona mugakide esleituak: 0A / 0C / 1B / 1C / 1D
 - 0C ZONAREN zona mugakide esleituak: 0A / 0B / 1C / 1D / 1E
- 1. tarifako zonak:
 - 1A ZONAREN zona mugakide esleituak: 1B / 1E / 2A
 - 1B ZONAREN zona mugakide esleituak: 1A / 1C / 2B
 - 1C ZONAREN zona mugakide esleituak: 1B / 1D / 2B
 - 1D ZONAREN zona mugakide esleituak: 1C / 1E / 2C
 - 1E ZONAREN zona mugakide esleituak: 1A / 1D / 2C
- 2. tarifako zonak:
 - 2A ZONA
 - 2B ZONA
 - 2C ZONA

2. tarifako TAO zonek ez dute ondoko zona mugakide esleiturik izango.

10. artikulua.- Emisio Gutxiko Eremua.

Gasteizko hirian Emisio Gutxiko Eremu bat ezartzeari buruzko Ordenantzak lurralde-eremu jakin bat mugatzen du, non ibilgailu motordunekin sartu eta zirkulatzeko nahiz hura aparkatzeko murrizketak ezartzen baitira, ingurumen-bereizgarriaren arabera. Ordenantza horren 10. artikulua ingurumen-bereizgarriaren arabera eskakizunak betetzetik salbuesteko kasu jakin batzuk arautzen ditu. Baita Egoiliarren Lehentasuneko Eremuaren (ELE) ezarpena eta garapena ere; eremu horretan nolabaiteko mugak aplikatzeko neurri espezifikoak ezartzen zaizkie ez-egoiliarrei, iraungarritasunaren alde, eta egoiliarrek zein ibilgailu baimenduen tituluak lehenesteko.

Beraz, EGEa arautzeko ordenantzak eskatzen duen ingurumen-bereizgarriaren eskakizuna betetzen ez duten eta Udalak propio xede horretarako sortutako erregistroan salbuetsi gisa inskribatuta ez dauden ibilgailuek ezin izango dute lurralde-eremu horretan aparkatu, ezta dagokien OTA zonan aparkatzeko bereizgarria baldin badute ere.

Ordenantza honek hiru TAO / EGE zonatan banatzen du Emisio Gutxiko Eremua, eta horietan lurrazalean aparkatzeko araubidea xedatzen du.

TAO / EGE zonetako aparkaleku-plaza guztiak soilik egoiliarrentzat izango dira, ez beste inorentzat. Horien araubidea ordenantza honetan erabiltzaile mota horretarako zehaztutakoaren arabera izango da.

EGE barruan dauden zamaletarako guneak ordenantza honen erregulaziotik kanpo daude, 5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

2. atala. Espazioaren ezaugarriak.**11. artikulua.- Ohiko ordutegia.**

Oro har, ordu hauetan izango dira indarrean TAO zonei buruz ordenantza honetan ezarritako arauak:

- Astelehenetik ostiralera: 10:30etik 14:00etara.
16:00etatik 20:00etara.
- Larunbatetan: 11:00etatik 14:00etara.

Jaiegun ofizialetan ez da ordenantza hau aplikatuko, ezta abuztuaren 1etik 31ra bitartean (egun biak barne) eta abenduaren 24aren zein 31ren arratsaldeetan ere.

Udalak ordutegia zein egutegia aldatzerik izango du, betiere erabiltzaileek horren berri izango dutela bermatzeko beharrezko neurriak hartuta.

12. artikulua.- Ordutegi berezia.

Zamalanetarako TAO guneei ordutegi berezia izango dute, propio jardura horretarako, alkatearen dekretu eta/edo xedapen bidez ezarria, Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantzaren 12. artikuluan xedatutakoaren haritik. Ordutegi hori seinaleztapen bertikalaren bidez adieraziko da.

Ordutegi bereziak dituzten aparkaldi laburreko aparkaleku-plazek ordutegi eta egutegi orokorrekin bestelakoak eduki ahal izango dituzte; seinale bertikalen bidez adieraziko dira ordutegi berezi horiek. Adierazitako ordutegi eta egutegietatik kanpo, plaza horiek egoiliarrentzako aparkaleku-plaza izango dira.

Zamalanetarako TAO guneei eta ordutegi bereziak duten aparkaldi laburreko aparkaleku-plazetan ez da ordenantza hau aplikatuko, ez jaiegun ofizialetan, ezta abuztuaren 1etik 31ra bitartean ere (egun biak barne).

Egoiliarrentzako zona eskusiboetan eta EGEan daudenetan, muga horiek eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan egongo dira indarrean.

II. KAPITULUA. APARKALDI ARAUTUAREN ERABILERA.**13. artikulua.- Erabiltzaile motak.**

TAO zonetan bost erabiltzaile mota bereizten dira: egoiliar, merkataria, profesionalak eta langile autonomoak, Salgaien Hiri Banaketako langileak, eta bisitariak.

Kolektibo horiek gorabehera, ordenantza honen araubidetik kanpo daude ordenantza honen 5. artikuluan adierazitako ibilgailuak.

Egoiliarra: TAO zona bakoitzean, bertako egoiliartzat joko da indarrean dagoen eta egoiliar izaera ematen dion aparkatze-bereizgarria duen pertsona oro, baldin eta bereizgarrian TAO zona horixe adierazten bada.

TAO / EGE zonako egoiliarra: TAO / EGE zona bakoitzean, bertako egoiliartzat joko da OA, OB eta OC zonetako aparkatze-bereizgarria duen pertsona oro, baldin eta bereizgarrian TAO / EGE zona hori adierazten bada. Bereizgarri hori edukitzeak

ez du salbuesten ingurumen-bereizgarriaren arabera EGEan sartzeko, zirkulatze eta aparkatzeko ezarritako murrizketak bete beharretik (EGEa arautzen duen ordenantzak zehazten ditu murrizketa horiek).

Merkataria: TAO zona bakoitzean, bertako merkataritzat joko da indarrean dagoen eta merkataria izaera ematen dion aparkatze-bereizgarria (merkataritza jardueraren bereizgarria) duen pertsona fisiko edo juridiko oro.

TAO / EGE zonako merkataria: TAO / EGE zona bakoitzean, bertako merkataritzat joko da 0A, 0B eta 0C zonetako merkataritza-TAO bereizgarria duen pertsona fisiko edo juridiko oro, baldin eta bereizgarria TAO / EGE zona hori adierazten bada. Bereizgarri hori edukitzeak ez du salbuesten ingurumen-bereizgarriaren arabera EGEan sartzeko, zirkulatze eta aparkatzeko ezarritako murrizketak bete beharretik (EGEa arautzen duen ordenantzak zehazten ditu murrizketa horiek).

Profesionala eta/edo langile autonomoa: profesional edo langile autonomotzat joko da gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboarentzako TAO aparkatze-bereizgarria duen pertsona fisiko edo juridiko oro. Bereizgarri hori edukitzeak ez du salbuesten ingurumen-bereizgarriaren arabera EGEa barruko 0A, 0B eta 0C TAO / EGE zonetan sartzeko, zirkulatze eta aparkatzeko ezarritako murrizketak bete beharretik (EGEa arautzen duen ordenantzak zehazten ditu murrizketa horiek).

Salgaien Hiri Banaketa: zalamanetarako TAO guneak erabiltzeko baimena duten ibilgailuek gune horiek okupatu ahal izango dituzte, betiere Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantzak zalamanetarako ezarritako gehieneko denbora-tartean.

Bisitaria: Ordenantza honen ondorioetarako, bisitaritzat joko da artikulua honetan zehaztutako kolektibo motetako batekoa ez diren gainerako edozein erabiltzaile.

14. artikulua.- Plaza motak.

TAO zonetan aparkaleku-plaza mota hauek finkatu ahal izango dira, 5. artikuluan adierazitakoaren ildotik ordenantza honen arauditik bazter utzitako plazak gorabehera:

Egoiliarrentzako plazak: kolore berdeko marrek mugatzen dituzten aparkaleku-plazak oro izango dira halako, TAO zona bakoitzaren barruan.

Egoiliarrentzako plaza eskusiboak: marra aldizka berde eta gorriek mugatzen dituzten aparkaleku-plazak oro izango dira halako, TAO zona bakoitzaren barruan. Egoiliarrentzako plaza eskusibotzat joko dira, halaber, horietan gelditzea eta/edo aparkatzea debekatuta ez egon arren, aparkaleku-plazaren marra-mugatzaileak ez dutenak baina bai dagokien seinale bertikala.

EGEaren barruko egoiliarrentzako plaza eskusiboak: egoiliarrentzako plaza eskusiboak izango dira EGEaren barruan dauden aparkaleku-plaza guztiak. Marra aldizka berde eta gorriek mugatzen dituzten aparkalekuak egoiliarrentzako plaza eskusibotzat joko dira. Egoiliarrentzako plaza eskusibotzat joko dira, halaber, horietan gelditzea eta/edo aparkatzea debekatuta ez egon arren, aparkaleku-plazaren muga-marrarik ez dutenak baina bai dagokien seinale bertikala. Plaza horiei Gasteizko Hirian Emisio Gutxiko Eremua sortzei buruzko ordenantza bertan sartu, zirkulatu eta aparkatzei ezarritako muga eta salbuespenak aplikatuko zaizkie.

Txandakako plazak: kolore urdineko marrek mugatzen dituzten aparkaleku-plazak oro izango dira halako, TAO zona bakoitzaren barruan.

Aparkaldi laburreko plazak: kolore laranja marrek mugatzen dituzten aparkaleku-plazak oro izango dira halako, TAO zona bakoitzaren barruan.

Aparkaldi laburreko eta ordutegi bereziko plazak: kolore laranjako marrek mugatzen dituzten aparkalekuak oro izango dira halako, TAO zona bakoitzaren barruan.

Zamalanetarako plazak: Zamalanetarako erreserbatutako plazak seinale bertikalen bidez mugatuko dira. Seinale bertikalean zamalanetarako adierazitako ordutegitik kanpo, aparkaleku-plaza horiek bi modutara kudeatu ahalko dira: lehenaren arabera egoiliarrentzako plaza, egoiliarrentzako plaza eskusibo, edo txandakako plaza izango dira —marra mugatzailea zein koloreko den—; eta bigarrenaren arabera plaza horietan aparkatzea debekatuko, baldin eta seinale bertikal bidez hala adierazten bada.

15. artikulua.- Plazen erabilera.

Jarraian adieraziko den moduan erabili behar dira aparkaleku-plazak, TAO zonen barruan:

Egoiliarrentzako plazak: Erabiltzaile mota hauek ez dute tiket fisiko edo birtualik lortu beharrik plaza horietan aparkatzeko; horrez gain, ez dute ordu-mugarik:

1. Norberaren TAO zonako eta zona mugakide esleitueto egoiliar edo merkatariaren aparkatze-bereizgarriaren titularrak.
2. Gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboarentzako TAO bereizgarriaren titularrak.

Bisitariet tiket fisiko edo birtuala lortu beharko dute nahitaez, horretarako onartutako sistemaren baten bidez ordenantza fiskalean ezarritako tasa ordainduz, eta baita aparkatzeko ezarritako denbora mugatua errespetatzera ere.

Dena delako ordenantza fiskalean finkatuko da zer denbora dagokion gutxieneko tasari, zein izango den aparkatzeko gehieneko denbora eta zer tasa ordaindu beharko diren.

Egoiliarrentzako plaza eskusiboak: Plaza hauetan erabiltzaile mota hauek bakarrik aparkatu ahal izango dute, ordu-mugarik gabe:

1. Norberaren TAO zonako eta zona mugakide esleitueto egoiliar edo merkatariaren aparkatze-bereizgarriaren titularrak.
2. Gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboarentzako TAO bereizgarriaren titularrak.

Bisitariet —pertsone fisiko zein juridiko izanik ere— ezin izango dute plaza hauetan aparkatu.

Txandakako plazak: Plaza hauetan erabiltzaile mota orok izango du bere ibilgailua aparkatzerik, aparkaldi-muga jakin batzuen barruan, baina ordenantza fiskalean finkatutako kuota ordaindu beharko dute, horretarako onartutako sistemaren baten bidez.

Dena delako ordenantza fiskalean finkatuko da zer denbora dagokion gutxieneko tasari, zein izango den aparkatzeko gehieneko denbora eta zer tasa ordaindu beharko diren.

Gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboarentzako TAO bereizgarriaren titularrak salbuetsita daude tiket fisiko edo birtuala lortu beharretik, eta ez dute ordu-mugarik izango.

Aparkaldi laburreko plazak: Plaza hauetan erabiltzaile mota orok izango du bere ibilgailua aparkatzerik, baina aparkatzeko denbora-tartea mugatuagoa izango da, seinale bertikal bidez zehaztutakoaren arabera; horrez gain, tiket fisiko edo

birtuala lortu beharko dute. Gainera, dagokion tasa ordaindu beharko dute, horretarako onartutako sistemaren baten bidez, baldin eta ordenantza fiskalak hala ezartzen badu.

Aparkaldi laburreko eta ordutegi bereziko plazak: Plaza hauetan erabiltzaile mota orok izango du bere ibilgailua aparkatzerik, baina aparkatzeko denbora-tartea mugatuagoa izango da, seinale bertikal bidez zehaztuko den ordutegi berezi baten arabera; horrez gain, tiket fisiko edo birtuala lortu beharko dute, eta ordutegi berezia. Gainera, dagokion tasa ordaindu beharko dute, horretarako onartutako sistemaren baten bidez, baldin eta ordenantza fiskalak hala ezartzen badu.

Zamalanetarako TAO plazak: Zamalanetarako TAO guneak erabiltzeko baimena duten ibilgailuek, bai eta profesionalek eta/edo langile autonomoek ere, aparkatzeko denboraren muga izango dute, hain zuzen ere Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantzan xedatutakoa. Zamalanetarako tiket fisikoa edo birtuala lortu beharko dute nahitaez. Zamalanetarako TAO guneak erabiltzeko —betiere seinale bertikaletan adierazitako ordutegia errespetatuz— gaitzen duen tiketa lortu behar da nahitaez. Zamalanetarako ordutegitik kanpo, plaza horiek aparkatzeko-plaza izango dira (egoiliarrentzat, txandakakoak, edo aparkaldi laburrekoak), seinale horizontalek eta/edo bertikalek hala ahalbidetzen badute.

III. KAPITULUA. TAO gaitze-agiriak.

16. artikulua.- TAO tiketak.

1. Bi tiket mota baliatu daitezke ordenantza fiskalean ezarritako tasak ordaintzeko:

1.1. Tiket fisikoa: bide publikoan horretarako propio jarritako makinetan erosten da. Baimendutako aparkaldiaren data eta amaiera-ordua ageriko dira bertan. Ez da nahitaez ibilgailuan ikusgai ipini behar.

1.2. Tiket birtuala: Udalak horretarako egokitutako aplikazio informatikoetan (Udalaren webgunean daude eskuragarri) erosi eta ordaintzen da.

TAO tiketa eskuratu ahal izateko, matrikula idaztea eskatuko du beti Udalak.

2. Egoiliarrentzako zein txandakako plazetan aparkatuz gero, ordaindutako tasari dagokion gehieneko denbora-tartea igaro ondoren, ibilgailua TAO zona horretatik atera beharko da, eta ezin izango da bertan berriz aparkatu 60 minutu igaro arte, tiketea adierazitako ordu-muga gainditzen denetik zenbatzen hasita.

3. Denbora-tarte jakin batean aparkatzeko doako tiketa lor daitekeen kasuetan, ez da ondoz ondoko doako tiketak erabiltzerik TAO zona berean 60 minutu igaro arte, tiketea adierazitako ordu-muga gainditzen denetik zenbatzen hasita.

4. Zamalanetarako TAO tiketa: zamalanetarako guneak erabiltzeko baimena duten ibilgailuentzat tiket fisiko edo birtuala lortu behar.

4.1. Tiket birtuala: tiket birtuala lortzeko matrikula-zenbakia idatzi behar da, eta zein zamalanetarako TAO zonatan aparkatu nahi den, Udalak horretarako egokitutako aplikazio informatikoetan (Udalaren webgunean daude eskuragarri).

Zamalanetarako TAO zona jakin batean aparkatu ondoren, ezingo da ibilgailua bertan aparkatu 60 minutu igaro arte; hala ere, TAO zona bereko beste edozein zamalanetarako TAO zonatan aparkatu ahal izango da.

Zamalanetarako TAO zona jakin batean tiket birtualarekin aparkatzen den aldiko dagokion tiket birtuala lortu beharko da.

4.2. Tiket fisikoa: tiket fisikoa lortzeko, matrikula-zenbakia idatzi behar da zamalanetarako TAO zonatik hurbilen dagoen makinan.

Zamalanetarako TAO zona jakin batean aparkatu ondoren, ezingo da ibilgailua bertan aparkatu 60 minutu igaro arte, tiketean adierazitako ordumuga gainditzen denetik zenbatzen hasita; hala ere, TAO zona bereko beste edozein zamalanetarako TAO zonatan aparkatu ahal izango da, hartarako zamalanetarako OTA tiketa eskuratuta.

17. artikulua.- TAO aparkatze-bereizgarria ematea.

1.- Egoiliarrentzako TAO aparkatze-bereizgarria.

Horrela deitzen zaio haren jabea egoiliarra dela adierazten duen gaitze-agiriari; pertsona fisiko jakin bati emango zaio —eta ibilgailu jakin baterako—, baldin eta eskakizun hauek betetzen baditu:

- a) Eskatzaileak erroldatuta egon beharko du —egiatan eta modu iraunkorrean— lurrazaleko aparkaldi mugatu eta arautuko zonetako kaleetako batean, zein ordenantza honetako I. eta II. eranskinetan adierazten baitira.
- b) Txartela zein ibilgailutarako eskatzen den —turismoa, pickup-a, kuatriziklo astuna, ibilgailu misto, edo 3.000 kg-tik beherako karga erabilgarria duten furgoi/kamioia izan beharko du nahitaez—, haren jabea eta ohiko gidaria izan beharko du eskatzaileak, eta gidatzeko baimena indarrean eduki beharko du. Kasu horietan, ezin izango dute aparkatu atoi akoplatu batekin.
- c) Eskatzailearen erroldatze-helbideak eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenean ageri denak atari berekoak izan beharko dute, eta, betiere, tiketa eskatzen deneko TAO zonakoak. Bizilekua beste TAO zona batera aldatuz gero, zona berriaren bereizgarria eskatu beharko da. Eskatera hori onetsi egingo da, baldin eta eskatutako baldintzak betetzen baditu.
- d) Eskatzaileak aurreko urteko TAO bereizgarriari dagokion tasa ordainduta izan beharko du, halakorik eman izan balitzaio.

Eskatera egin duen pertsona eta/edo jarduera ibilgailuaren jabea ez bada, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- a) Ibilgailua leasing edo renting bidez eskuratu badu:
 - Leasing edo renting kontratuaren kopia.
- a) Ibilgailua eskatzailearen enpresak utzia bada:
 - Eskatzailearen eta ibilgailuaren titularra den enpresaren arteko lan-harremana egiaztatzen duen agiria.
 - Eskatzaileari enpresak ibilgailua eskusiboki eta lanorduetatik kanpo erabiltzeko baimena eman diola egiaztatzen duen agiria.

Eskatzaile bakoitzeko aparkatze-bereizgarri bakarra emango da, nahiz eta bigarren bereizgarri bat ematerik izango den titular beraren beste ibilgailu baterako, ezkontideak edo ahaidetasun zuzeneko lehen graduako ondorengoren batek erabiltzen badu, hura titularraren helbide berean erroldatuta badago, eta ohiko bizilekua bertan badu.

Nolanahi ere, helbide bakoitzeko gehienez hiru aparkatze-bereizgarri eman ahal izango dira.

2.- Merkataritza-TAO aparkatze-bereizgarria.

Horrela deitzen zaio haren jabea merkataria dela adierazten duen gaitze-agiriari; pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emango zaio —ibilgailu baterako edo hainbaterako—, baldin eta eskakizun hauek guztiak betetzen baditu:

a) Ibilgailua edo ibilgailuak jardueraren titularren edo jardueraren beraren izenean egongo dira. Ibilgailu horiek —zirkulazio-baimena aparkatze-bereizgarria eskatzen den TAO zonan helbideratuta egon beharko dute— tipologia honi erantzun beharko diote: turismoa (jarduera garatzeko beharrezkoa), pickup-a, kuartiziklo astuna, ibilgailu mistoa, edo 3.000 kg-tik beherako karga erabilgarria duen furgoi/kamioa.

b) TAO zonetan dauden enpresa-jarduerari emango zaie halako bereizgarria, baldin eta III. eranskinean adierazitako Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) epigrafeetakoren batean alta emanda badaude; alabaina, salbuespen izango dira ibilgailu mistoak zein 3.000 kg-tik beherako karga erabilgarria duten furgoi/kamioiak, horiek edozein epigrafetan alta emanda egonik ere onartuko baitira.

Salbuespen gisa, Udalak merkataritza-TAO bereizgarria eman ahal izango dio III. eranskinean jasota ez dagoen enpresa-jarduera bati, aldez aurretik hala eskatuta, baldin eta haren beharra justifikatuta dagoela uste badu.

c) Jarduera bakoitzeko bost bereizgarri emango dira gehienez, beste horrenbeste ibilgailutarako.

d) Eskatzaileak aurreko urteko TAO bereizgarriari dagokion tasa ordainduta izan beharko du, halakorik eman izan balitzaio.

Eskaera egin duen pertsona eta/edo jarduera ibilgailuaren jabea ez bada, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Ibilgailua leasing edo renting bidez eskuratu badu:

— Leasing edo renting kontratuaren kopia.

a) Ibilgailua eskatzailearen enpresak utzia bada:

— Eskatzailearen eta ibilgailuaren titularra den enpresaren arteko lan-harremana egiaztatzen duen agiria.

— Eskatzaileari enpresak ibilgailua eskusiboki eta lanorduetatik kanpo erabiltzeko baimena eman diola egiaztatzen duen agiria.

3.- Gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboarentzako bereizgarria.

Horrela deitzen zaio haren jabea gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboko kidea dela adierazten duen gaitze-agiriari; pertsona eta/edo jarduera jakin bati emango zaio, baldin eta eskakizun hauek guztiak betetzen baditu:

a) Ibilgailua edo ibilgailuak jardueraren titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren edo jardueraren beraren izenean egongo dira. Ibilgailu horiek —Gasteizen helbideratuta egon behar dute— tipologia honi erantzun beharko diote: turismoa (jarduera garatzeko beharrezkoa), pickup-a, kuartiziklo astuna, ibilgailu mistoa, edo 3.000 kg-tik beherako karga erabilgarria duen furgoi/kamioa.

b) Egoitza Gasteizko udalerrian duten enpresa-jarduerari emango zaie halako bereizgarria, baldin eta III. eranskinean adierazitako Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) epigrafeetakoren batean alta emanda badaude.

Salbuespen gisa, Udalak Gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboarentzako TAO bereizgarria eman ahal izango dio III. eranskinean jasota ez dagoen enpresa-jarduera bati, aldez aurretik hala eskatuta, baldin eta haren beharra justifikatuta dagoela uste badu.

c) Eskatzaileak aurreko urteko TAO bereizgarriari dagokion tasa ordainduta izan beharko du, halakorik eman izan balitzaio.

Eskaera egin duen pertsona eta/edo jarduera ibilgailuaren jabea ez bada, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Ibilgailua leasing edo renting bidez eskuratu badu:

— Leasing edo renting kontratuaren kopia.

a) Ibilgailua eskatzailearen enpresak utzia bada:

— Eskatzailearen eta ibilgailuaren titularra den enpresaren arteko lan-harremana egiaztatzen duen agiria.

— Eskatzaileari enpresak ibilgailua eskusiboki eta lanorduetatik kanpo erabiltzeko baimena eman diola egiaztatzen duen agiria.

18. artikulua.- TAO aparkatze-bereizgarria izateko galtzea.

1. Titularrak TAO zonan aparkatzeko bereizgarria izateko eskubidea galduko du ordenantza honetan aparkatze-bereizgarri mota bakoitzerako aurreikusitako baldintzak betetzeari uzten badu, edo gauden urteari dagokion tasaren ordainagiria ordaintzen ez badu.

2. Aparkatze-bereizgarria izateko eskubidea galduz gero, titularrak beste bat lortu ahal izango du, dagokion tasa ordainduta, betiere ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu.

3. Udalak beretzat gordetzen du eskakizun horiek betetzen diren ikusteko edozein froga dokumental eskatzeko nahiz behar diren egiaztapenak oro ofizioz egiteko eskubidea, baita aparkatzeko bereizgarria eskatzen dutenek aurkezten dituzten datuen benetakotasuna egiaztatzeko eskubidea ere.

4. Egindako egiaztapenetatik ondorioztatzen bada aparkatzeko bereizgarriaren titularrak iruzur eginez erabili duela hura, edo bereizgarria eskuratzeko aurkeztutako datuak faltsutu egin dituela, txartela kentzeko dosierra abiaraziko da. Horrek ez du galaraziko, ordea, dagokion dossier zigortzailea abiaraztea. Arrazoi horregatik aparkatzeko bereizgarria baliogabetzeak ez du hura eskuratzeko ordaindutako tasa itzultzeko eskubiderik sortuko.

19. artikulua.- TAO aparkatze-bereizgarrien araubide orokorra.

1. TAO aparkatze-bereizgarriak birtualak izango dira.

2. Bertan inprimatuta ageri den urte naturalerako balioko dute TAO aparkatze-bereizgarriek. Berriak izapidetzean atzerapenik izanez gero, edo antzeko arrazoren bat egokituz gero, indarraldia luzatzerik izango du alkateak.

3. Egoiliar nahiz merkatarienezako TAO aparkatze-bereizgarriak banku-helbideratze bidez ordaindu behar dira nahitaez.

4. TAO aparkatze-bereizgarriaren titularrek hura ematea eragin zuten eskakizunetan gertatzen den aldaketa ororen berri jakinarazi beharko diote, nahitaez, Udalari.

5. TAO aparkatze-bereizgarria duen ibilgailu bat —matxura edo ezbehar baten ondorioz— aldi batez zirkulatzeak ezgaituta geratzen delarik, eta haren jabeak denbora horretarako ordezeko ibilgailu bat eskuratzen duelarik, azken horretarako TAO aparkatze-bereizgarria eduki ahal izango du aldi batez, matxuratuaren eremu bererako, harik eta hura konpondu arte. Ibilgailuaren titularrak ordezeko ibilgailuaren matrikulari atxikitako behin-behineko bereizgarria eskatu beharko du, konponketa-tailerraren txosten bat erantsita. Txosten horretan ibilgailua konpontzen ari dela jaso beharko da, baita aurreikusitako konponketa-denbora ere, gutxi gorabeherakoa. Ordezko ibilgailuari behin-behineko bereizgarria atxikitzen zaion unetik, aldi baterako baja emango zaio jatorrizko bereizgarriari. Ordezko ibilgailua tailerrean entregatzeko eskabidean adierazitako egunean itzuliko da jatorrizko bereizgarria, edo titularrak hala eskatzen duenean.

III. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA

20.artikulua.- Zehapen-prozedura

Ordenantza honetan xedatutakoa urratzeagatik Gasteizko Udalak duen zehatzeko ahala gauzatzeko administrazio-prozedurari ekingo dio Udalak, betiere Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren V. tituluaren IV. Kapituluan —edo hura ordeztzen duen arauan— ezarritakoari jarraikiz.

21. artikulua.- Erantzukizuna.

Ordenantza honetan ezarritakoaren kontra egindako arau-hausteen erantzukizuna arau-hauslearena izango da zuzenean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 88. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

22. artikulua.- Zehatzeko eskumena.

Ordenantza honen aurka egindako arau-haustek zehatzeko eskumena alkateari edo hark eskuordetzen duen organoari dagokio.

Trafiko Isunen Atala (Ogasun Saila - Diru-Bilketa Zerbitzua) da ordenantza honen kontrako arau-hausteen harira abiarazten diren zehapen-prozedurak bideratu eta izapidetzeko eskumena duen organoa.

23. artikulua.- Arau-haustek.

Ordenantza honen aurkako egiteak eta ez-egiteak administrazioko arau-haustetzat joko dira, eta legean ezarritako moduan zehatuko dira, unean-unean aplikagarri den eta indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera.

Ordenantza honetan deskribatutako arau-haustek udaltzainek zein aparkaldi arautuaren zainzaileek salatuko dituzte.

1) Arau-hauste **arintzat** joko dira hauek:

- a. Ibilgailua indarrean dagoen gaitze-agiri fisiko edo birtualik gabe aparkatzea, hartarako salbuetsita egon gabe.
- b. Ibilgailua aparkatuta, gaitze-agirian adierazitako ordu-muga gainditzea.

- e. Egoiliarrentzako plaza eskusiboetan aparkatzea, norbera zona horretako edo zona mugakide esleitutakoren bateko egoiliarra dela egiaztatu gabe.
- d. Norberari ez dagokion tiket edo tarifa baliatuz TAO zonan aparkatzea.
- e. Ordenantza honetan xedatutakoaren kontrako beste edozein arau-hauste edo ez betetze.

2) Arau-hauste **larritzat** joko dira hauek:

- a. Gaitze-agiri manipulatu edo faltsutua baliatuz aparkatzea.
- b. Datu faltsuekin lortutako bereizgarri baten bidez aparkatzea, edo bereizgarria iruzurrez baliatzea.

24. artikulua.- Zehapenak

Unean-unean aplikagarri den eta indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera zigortu ahal izango dira ordenantza honetan xedatutakoen kontrako arau-hausteak.

1. Zehapen arinak: Ordenantza honetan arintzat tipifikatutako arau-hausteak 30 eta 60 euro arteko isunarekin zehatuko dira, Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantzan jasotako arau-hausteen taulan xedatutakoaren haritik.

2. Zehapen larriak: Ordenantza honetan larritzat tipifikatutako arau-hausteak 200 euroko isunarekin zehatuko dira, Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantzan jasotako arau-hausteen taulan xedatutakoaren haritik.

3. Bereizgarria kentzea: Beste zehapen bat ere gehitu daiteke arau-hauste larrien kasuan, alegia, TAO bereizgarria kentzea. Halakoetan, ezingo da berriro bereizgarria eskuratu hurrengo bi urte naturaletan.

Gainera, neurri hauek hartu ahal izango dira:

a. Ibilgailuak bide publikotik kentzea: Aplikazio-araudiaren haritik, bide publikotik kendu ahal izango dira aparkaleku-zona arautuetan baimenik gabe aparkatuta dauden ibilgailuak, baita baimendutako denboraren bikoitza gainditzen dutenak ere.

Tiketean adierazitako denbora baimenduren bikoitza gainditzen denean, ibilgailua ez da bide publikotik kenduko harik eta tiketean adierazitako denbora amaitzen denetik bi ordu igaro diren arte, ez hori baino lehenago.

b. Ibilgailua ibilgetzea: Orobat ibilgetu ahal izango da ibilgailua aparkatzeko baimenik ez badu, edo emandako baimenaren denbora gainditzen badu, harik eta gidaria identifikatzea lortu arte.

I. xedapen gehigarria: ELKARRERAGINGARRITASUNA

Udalak ofizioz eskatu ahal izango ditu beste administrazio publiko batzuen esku dauden datuak, baina bakarrik ordenantza honetan araututako betekizunak egiaztatzeko balio badute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikuluko aurreikuspenen arabera.

II. xedapen gehigarria: ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENEN TAULA.

Ordenantza hau indarrean jartzean, aldatu egingo da Gasteizko Udalaren hiriko bide publikoetako erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen Ordenantzaren Trafikoko arau-hausteen eta zehapenen taula, honela:

	94	GELDITZEA EDO APARKATZEA DEBEKATUTA DAGOEN LEKUAK		
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1a / 24.10 art.	ZAO, 94.2b art.	Gune arautuan gaitze-agiririk gabe aparkatzea	A	60,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1b / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	Tiketean adierazitako ordu-mugatik gora egitea aparkatuta, 60 minutu baino gutxiago	A	30,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1b / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	Tiketean adierazitako ordu-mugatik gora egitea aparkatuta, 60 minutu baino gehiago	A	60,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1b / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	Doako tiketaren (15 min.) ordu-mugatik gora egitea aparkatuta, 60 minutu baino gutxiago	A	30,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1b / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	Doako tiketaren (15 min.) ordu-mugatik gora egitea aparkatuta, 60 minutu baino gehiago	A	60,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1b / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	Ibilgailua gune arautuan (aparkaldi laburreko plazak, zamalanetarakoak...) ezarritako denboratik gora egitea aparkatuta, 60 minutu baino gutxiago.	A	30,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1b / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	Ibilgailua gune arautuan (aparkaldi laburreko plazak, zamalanetarakoak...) ezarritako denboratik gora egitea aparkatuta, 60 minutu baino gehiago.	A	60,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1c / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	Egoiliarrentzako aparkaleku-gune eskusiboan baimenik gabe aparkatzea	A	60,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1d / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	Zerbitzuei dagokien tiketa edo tarifa baliatuz TAO zonan aparkatzea halako tarifa baliatu ezin duenak	A	60,00
TAO Ord., indarrekoa, 23. 1d / 24.1 art.	ZAO, 94.2b art.	TAO zonan zamalanetarako tiketarekin aparkatzea halako tarifa baliatu ezin duenak	A	60,00
TAO Ord., indarrekoa, 23 2.a / 24.2 art.		Gaitze-agiri manipulatu edo faltsutua baliatuz aparkatzea (adierazi xehetasunak)	L	200
TAO Ord., indarrekoa, 23 2.b / 24.2 art.		Datu faltsuekin lortutako bereizgarri baten bidez aparkatzea, edo bereizgarria iruzurrez baliatzea (adierazi xehetasunak)	L	200

III. xedapen gehigarria: DATU PERTSONALEN BABESA

Ordenantza honen esparruan, bereziki babestuko dira Gasteizko Udalak baliatzen duen informazioan jasotako datu pertsonalak, eta bereziki bermatuko datu pertsonalen babesak berezko dituen eskubideak. Segurtasun-neurriak ezarriko dira berme horren alde, helburuak edo baimenak babesten ez duen trazabilitate pertsonal oro eragozteko. Oro har, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua —Datuak babesteko Araudi Orokorra— eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoa bete beharko dira (bereziki honako printzipio hauei dagokienez: datuen babesa, tratamenduen legitimazioa, eragindako pertsonen eskubideak, datuen babesa diseinutik bertatik eta lehenetsita, tratamendu-eragileak, segurtasun-arrakalak eta SENarekin bat datozen segurtasun-neurriak —egin beharreko arrisku-analisiak eta, behar izatera, inpaktu-ebaluazioak egin ondoren—), bai eta indarrean dagoen eta une bakoitzean aplikatzekoa den araudia ere.

IV. xedapen gehigarria.

Trafikoaren arloan eskumena duen organoak —zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren—, salbuespenezko erregimenen mende dauden aparkatzeko baimenen aparkatze-baldintzak aldatu ahal izango ditu, salbuespen gisa, egun jakin batzuetan, trafikoarekin eta aparkalekuekin lotutako arrazoiengatik, edo interes publikoko beste inguruabar batzuegatik. Horretarako, erabiltzaileek horren berri izango dutela bermatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu.

V. xedapen gehigarria.

Hiriko trafikoa eta ibilgailuen aparkalekuak arautu eta kontrolatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatu arte, gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboarentzako TAO bereizgarriari aplikatu beharreko tasa ordenantza horretan merkataritza-TAO bereizgarriarentzat zehaztutako berbera izango da.

Xedapen Indargabetzailea

Indarrik gabe geratuko da Lurrazaleko aparkaldi mugatuko zerbitzua (TAO) arautzen duen ordenantza —2022ko ekainaren 13ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (69. zk.) argitaratua— eta haren ondorengo aldaketak, bai eta ordenantza honetan xedatutakoaren aurkakoak zein kontrajarriak diren maila bereko edo beheagokoa xedapen guztiak ere.

Ordenantza honetan aurreikusi gabekoetan, 1. artikuluan adierazitako arau orokorretan xedatutakoaren arabera jokatu da.

Azken xedapenetan lehena.

Alkatetzaren dekretu bidez, ordenantzaren aldaketak erabaki ahal izango dira, nahitaez bete beharreko arau-aldaketarik gertatuko balitz, ordenantzaren edukia arau-aldaketa horietara egokitzeko. Berehala emango zaio horren berri Osoko Bilkurari, berrets dezan. Ordenantzaren aldaketak eraginkor izan daitezen, eta aplikagarri, dena delako dekretua ALHAOn eta Udalaren webgunean argitaratu beharko da aldatu den zatiaren edo eranskinaren testu osoa.

Azken xedapenetan bigarrena. Argitalpena eta indarrean sartzea.

Ordenantza hau 2025eko irailaren 15ean sartuko da indarrean.

Xedapen iragankorra. Landa-eremuko bizilagunentzako gaitze agiri berezia.

Salbuespen gisa, landa-eremuko egoiliarrentzako gaitze-agiri berezia —2. tarifako TAO zona guztietan aparkatzea ahalbidetuko duena— emango die Gasteizko Udalak udalerriko landa-eremuko herriren batean erroldatuta dauden eta agiria eskatzen dutenei, baldin eta ez badute herria Gasteizko hirigunearekin lotzen duen garraio publikorik.

I. eranskina

TAO zona bakoitzeko kale eta atarien zerrenda, aparkatzeko bereizgarria emateko.

0 zenbakiko zonak

0A zona

ARKA PLAZA

EDUARDO DATO KALEA

Zenbakiak: 1 - 31 eta 2 - 36

PRADO KALEA

BECERRO DE BENGOA KALEA

ESPAINIA PLAZA (PLAZA BERRIA)

GERNIKAKO ESTATUTUAREN KALEA

FORU KALEA

Zenbakiak: 7 - 35 eta 6 - 20

FORU PLAZA

ALABA JENERALAREN KALEA

LOMA JENERALAREN PLAZA

INDEPENDENTZIA KALEA

FLORIDAKO IBILBIDEA

AGIRRE LEHENDAKARIAREN KALEA

MAGDALENA KALEA

MATEO BENIGNO MORAZA KALEA

Zenbakiak: 1 - 23

CADENA Y ELETA APEZPIKUAREN KALEA

ADATSEKO ANDRE MARIAREN KALEA

OLAGIBEL

Zenbakiak: 1 - 27 eta 2 - 22

POSTA KALEA

Zenbakiak: 1 - 33 eta 2 - 46

POSTA PASABIDEA

SAN ANTONIO

Zenbakiak: 1 - 27 eta 2 - 18

SAN PRUDENTZIO

ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA

0B zona

ASKA KALEA

ARRIETA KALEA

BARRENKALEA

BILBO PLAZA

Zenbakiak: 1 - 5

BUENO MONREAL KALEA

TXIKITA KALEA

SAN PRUDENTZIO IKASTETXEKO KALEA

ANTEPARA KALEA

AIZTOGILE KALEA

TORNU KALEA

FRAI ZACARIAS MARTINEZ KALEA

FORU KALEA

Zenbakiak: 1 - 5

ESKOLA KALEA

ARKUPEKO IBILBIDEA

AIHOTZ PLAZA

BARNEKALE BERRIA

KANPOKALE BERRIA

JAUREGI KALEA

PINTORE KALEA

ERREGE ATEA

SAN FRANTZISKO KALEA

SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA

SAN FRANTZISKO ALDAPA

SAN ILDEFONTSO KALEA

SAN MARKOS KANTOIA

SAN MIGELEKO ESKAILERAK

SAN BIZENTE PAULEKOAREN KALEA

SAN BIZENTE ALDAPA

SANTA ANA KANTOIA

SANTA MARIA KALEA

SANTA MARIA KANTOIA

SANTA MARIA PLAZA

SANTO DOMINGO KALEA

APAIZGAITEGIKO KANTOIA

GOIURI PLAZA

0C Zona

ANORBIN KANTOIA

HEDEGILE KALEA

ARABAKO FORU ALDUNDIA

AHATE ITURRI PLAZATXOA

JESUSEN ZERBITZARIEN FUNDATZAILEAREN Zenbakiak: 1 - 35 eta 4 - 24

ERREMENTARI KALEA

UHASKA ZAHARREKO KALEA

PROBINTZIA PLAZA

BAKARDADE KANTOIA

HARATEGI KANTOIA

ALAMEDAKO MARKESAREN PLAZA

PEDRO EGAÑA KALEA

ARRIAGAKO ATEA Zenbakiak: 2 - 12

SAN PEDROKO PASABIDEA

SAN ROKE KANTOIA

ZAPATARI KALEA

1 zenbakiko zonak

1A zona

AMARIKA PLAZA

EDUARDO DATO KALEA Zenbakiak: 33 - 43 eta 38 - 44

FORU KALEA	Zenbakiak: 37 - 47 eta 22 - 30
ISAAC ALBENIZ KALEA	
JOSE ERBINA KALEA	
GELTOKI PLAZA	
FLORIDA KALEA	Zenbakiak: 1 - 53 B eta 2 - 62 A
LOPE DE LARREA KALEA	
MANUEL IRADIER KALEA	Zenbakiak: 1 - 39 eta 2 - 92
RAMON ORTIZ DE ZARATE KALEA	
ERRIOXA KALEA	
SALVADOR GARCIA DEL DIESTRO KALEA	
SAN ANTONIO	Zenbakiak: 27 A - 45 eta 20 - 34

1B zona

ANGULEMA KALEA	
AIALA KANTZILERRAREN KALEA	
URRIAREN HAMABIAREN KALEA	
JESUS GURIDI KALEA	
JOAN XXIII.AREN KALEA	
FLORIDA KALEA	Zenbakiak: 55 eta 64 - 78
BAKE KALEA	
HERRANDARREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 46
BABESGABETUEN ANDRE MARIAREN PLAZA	
OLAGIBEL KALEA	Zenbakiak: 29 - 31 eta 26 - 38
PIO XII.AREN KALEA	
POSTA KALEA	Zenbakiak: 37 - 49 eta 48 - 52
BERPIZKUNDEAREN PLAZA	
SANTA BARBARA PLAZA	
DONE JAKUE HIRIBIDEA	Zenbakiak: 1 - 11

1C Zona

ARANA KALEA	Zenbakiak: 1 - 13 eta 2 - 22
BILBO PLAZA	Zenbakiak: 2
FRANTZIA KALEA	
OSPITALE PLAZA	
ISABEL ORBE	
ESPERANTZA KALEA	
ASKATASUN KALEA	
LA PALOMA KALEA	
KALONJEEN ZIDORRA	
HERRANDARREN KALEA	Zenbakiak: 13 - 53
MARTIN SALINAS PLAZA	Zenbakiak: 1
ESTENAGA APEZPIKUAREN KALEA	
PEDRO ORBEA KALEA	
LEGUTIANOKO ATEA	Zenbakiak: 1 - 17 eta 2 - 26
PRUDENCIO MARIA BERASTEGI KALEA	Zenbakiak: 2 - 26
ERREGI-ERREGINA KATOLIKOAK	Zenbakiak: 1 - 15 A eta 2 - 26
SAN ANTON PLAZA	
SAN IGNAZIO LOIOLAKOAREN KALEA	
URBINA KALEA	

1D Zona

ALDABE KALEA	
ALDABE PLAZATXOA	
BADAIA KALEA	
BASOA KALEA	
BASTITURRI KALEA	Zenbakiak: 1 - 11
TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 30
BEETHOVEN KALEA	
BRUNO VILLARREAL KALEA	
ZERKABARREN KALEA	
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLAZA	

ANDRE MARIA ZURIAREN KOROATZEA	
GURUTZE ZURIKO KALEA	
DOMINGO BELTRAN DE OTAZU	Zenbakiak: 1 - 47
EULOGIO SERDAN KALEA	
EULOGIO SERDAN PASABIDEA	
FELIX MARIA SAMANIEGO KALEA	
FRANCISCO JUAN AIALA PLAZA	
JESUSEN ZERBITZARIEN FUNDATZAILEAREN KALEA	Zenbakiak: 37 - 53 eta 26 - 40
GASTEIZ HIRIBIDEA	Zenbakiak: 46 - 90
GORBEIA	Zenbakiak: 1 - 41 eta 2 - 54
JOAQUIN JOSE LANDAZURI KALEA	
JULIAN APRAIZ KALEA	
KUTXA KALEA	
ZIUDADELA PLAZA	
KONSTITUZIO PLAZA	Zenbakiak: 1
LOVAINA PLAZA	Zenbakiak: 1
MAGDALENA KALEA	
MANUEL DIAZ DE ARKAIA KALEA	
NAVARRO VILLOSLADA KALEA	
PASCUAL ANDAGOIA PLAZA	
ARRIAGAKO ATEA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 14
RAMIRO MAEZTU KALEA	
RAMIRO MAEZTU PASABIDEA	
RICARDO BUESA KALEA	
ANTSO JAKITUNA	Zenbakiak: 1 - 29 eta 2 - 26
SANTO DOMINGO PLAZA	
SIMON ANDA KALEA	
LARRUGILE KALEA	
VICENTE GOIKOETXEA KALEA	
ZALDIARAN PLAZA	

1E Zona

ADRIANO VI.AREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 18
ARANTZABAL KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 8
BIZENTA MOGEL KALEA	Zenbakiak: 2 - 16
GASTEIZ HIRIBIDEA	Zenbakiak: 18 - 44
KOLDO MITXELENA KALEA	Zenbakiak: 1 - 15
MUSIKAREN IBILBIDEA	Zenbakiak: 1 - 9 eta 2 - 26
SENDA IBILBIDEA	Zenbakiak: 1 - 15 eta 2
LASKARAI KALEA	Zenbakiak: 2 - 8
LOVAINA PLAZA	Zenbakiak: 3
LOUIS HEINTZ KALEA	
AMA VEDRUNA	Zenbakiak: 1 eta 2 - 18
MICAELA PORTILLA KALEA	Zenbakiak: 1- 3 eta 2
GAZTELAKO ATEA	Zenbakiak: 1 - 35 eta 2 - 10
SANTIAGO RAMON Y CAJAL KALEA	Zenbakiak: 1 - 15

2 zenbakiko zonak**2A zona**

ADURTZA KALEA	Zenbakiak: 1 - 17 eta 2 - 20
ALBERTO SCHOMMER KALEA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 10
ALBOKA KALEA	Zenbakiak: 2 - 8
JAUREGILANDA KALEA	Zenbakiak: 1 - 5 eta 2 - 8
CASTRO URDIALES	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 12
IZARDUI KOMANDANTEAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 23 eta 2 - 32
DANTZARI PLAZA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 8
DOMINGO MARTINEZ DE ARAGON KALEA	Zenbakiak: 1 - 13
DULTZAINA KALEA	Zenbakiak: 3 - 13 eta 2 - 14
TRENBIDE KALEA	Zenbakiak: 2 - 10
FLANDRIA KALEA	Zenbakiak: 1 - 15 eta 12 - 14
FRANCISCO TOMÁS Y VALIENTE KALEA	
HERACLIO FOURNIER KALEA	Zenbakiak: 1 - 49 eta 2 - 42
HERACLIO FOURNIER PLAZA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 22

HERMINIO MADINABEITIA KALEA	Zenbakiak: 1 - 13 eta 2 - 22
ITURRITXU KALEA	Zenbakiak: 1 - 19
JOSE URUÑUELA KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 8
JUAN BAUTISTA GAMIZ KALEA	Zenbakiak: 2 - 16
JUSTO VELEZ DE ELORRIAGA KALEA	
UNIBERTSITATEKO IBILBIDEA	Zenbakiak: 1 - 5
ZUMAKADI IBILBIDEA	Zenbakiak: 1 - 63 eta 4 - 96
ZUMAKADI PLAZATXOA	Zenbakiak: 2 - 12
TRIANA KALEA	Zenbakiak: 7 - 23 A eta 12 - 14
APRAIZTARREN KALEA	Zenbakiak: 1 eta 2
ERROTA KALEA	Zenbakiak: 1 - 19 eta 2 - 10
KARTA PLAZA	Zenbakiak: 3 - 15 eta 2 - 6
MAURICIO VALDIVIELSO PLAZATXOA	Zenbakiak: 1 - 5 eta 2 - 4
MENDIOLABIDEA	Zenbakiak: 1 - 25
MIGUEL UNAMUNO HIRIBIDEA	Zenbakiak: 1 - 3
MIGUEL MIEG KALEA	Zenbakiak: 1
NIEVES CANO KALEA	Zenbakiak: 1 - 29 D eta 2 - 8
PABLO XERICA KALEA	Zenbakiak: 1 - 11
ERRAIMUN OLABIDE KALEA	Zenbakiak: 2 - 18
TRIKITIXA	Zenbakiak: 2 - 2
TXALAPARTA KALEA	Zenbakiak: 1 - 25 eta 2 - 20
TXIRULA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 6
TXISTULARI KALEA	Zenbakiak: 1 - 15
ZENDAGUREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 12
ZUMABIDE	Zenbakiak: 29 - 45

2B zona

AMIZKARRA KALEA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 12
ANDALUZIA KALEA	Zenbakiak: 1 - 25 eta 2 - 26
ANGLO-VASCOAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 4
ANTONIO DE SUCRE KALEA	Zenbakiak: 1
ARAGOI	Zenbakiak: 1 - 11

ARANA KALEA	Zenbakiak: 15 - 39 eta 24 - 38
ARANBIZKARRA	Zenbakiak: 2
ARANTZABELA KALEA	Zenbakiak: 1 - 5 eta 2
ARRIETA PASABIDEA	Zenbakiak: 2 - 10
ASTURIAS	Zenbakiak: 1 - 3
BENITO GINEA KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 18
COLÁ Y GOITI KALEA	Zenbakiak: 1 - 9 eta 2 - 6
TREBIÑOKO KONDERRIAREN KALEA	Zenbakiak: 7
GURUTZE BERDEKO KALEA	Zenbakiak: 2 - 8
DIEGO MARTINEZ DE ALABA KALEA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 8
URRIAREN HAMABIAREN KALEA	Zenbakiak: 5 - 19 eta 6 - 12
EDUARDO BELASKO KALEA	Zenbakiak: 1 eta 2
KARLOS I. ENPERADOREAREN PLAZA	Zenbakiak: 1
ERREKATXIKI KALEA	Zenbakiak: 1 - 39 eta 2 - 14
EXTREMADURA	Zenbakiak: 1 - 27 eta 2 - 18
FEDERICO BARAIBAR KALEA	Zenbakiak: 1 - 23 eta 2 - 36 A
FEDERICO GARCIA LORCA KALEA	Zenbakiak: 1 eta 2 - 6
OSASUN ITURRI KALEA	Zenbakiak: 1 - 9 eta 2 - 12
GALIZIA KALEA	Zenbakiak: 3 - 9 eta 2 - 14
HORTALEZA KALEA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 12
JACINTO BENAVENTE KALEA	Zenbakiak: 1 - 45 eta 2 - 50
JOSE ANTXIETA KALEA	Zenbakiak: 2 - 4
JOSE LEJARRETA KALEA	Zenbakiak: 3 - 49 eta 2 - 58
JOSE MARDONES KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 24
JOSE SAN MARTIN KALEA	Zenbakiak: 1 - 5
JOAN II.AREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 6
JUDIMENDI HIRIBIDEA	Zenbakiak: 1 - 23 eta 2 - 58
FLORIDA KALEA	Zenbakiak: 57 - 75 eta 80 - 98
HIRU PROBINTZIEN PLAZA	Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 6
LEON KALEA	Zenbakiak: 1 - 19 eta 2 - 6
LOGROÑO KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 22

ASTRONOMO KALEA	
KALONJEEN ZIDORRA	Zenbakiak: 9 - 11 eta 10
MANTELITARREN KALEA	Zenbakiak: 1 eta 2 - 4
SAEZ DE QUEJANATARREN KALEA	Zenbakiak: 1 y 2
TORNAY MEDIKUAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 9 eta 2 - 4
MIRANDA DE EBRO KALEA	Zenbakiak: 1 - 5 eta 2 - 6
MARIANO SAN MIGUEL MUSIKARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 4
ESTIBALIZKO ANDRE MARIAREN HIRIBIDEA	Zenbakiak: 1 - 67 eta 2 - 48
BALLESTER APEZPIKUAREN KALEA	Zenbakiak: 46 - 52
OLAGIBEL KALEA	Zenbakiak: 33 - 63 eta 46 - 68
PALENTZIA KALEA	Zenbakiak: 1 - 5 eta 2 - 26
PEPE UBIS PLAZA	Zenbakiak: 1 - 15 eta 2 - 14
SUTAUSTEGI ZAHARREKO KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 8
ERREGI-ERREGINA KATOLIKOAK	Zenbakiak: 15 B - 23 eta 28 - 38
RICARDO PUGA KALEA	Zenbakiak: 7 eta 14
SAN JOSE PLAZA	Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 4
SANTA LUZIA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 10
DONE JAKUE HIRIBIDEA	Zenbakiak: 13 - 61 eta 2 - 48
SIERRAS ALAVESAS KALEA	Zenbakiak: 1 - 9 eta 12 - 22I
SIMON BOLIBAR PLAZA	Zenbakiak: 5 - 13 eta 4 - 14
VALLADOLID KALEA	Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 32
VICENTE ALEIXANDRE KALEA	Zenbakiak: 1 - 25 eta 10 - 38
ZALBURU KALEA	Zenbakiak: 2 - 10

2C Zona

ABENDAÑO KALEA	Zenbakiak: 1 - 39 eta 2 - 54
ADRIANO VI.AREN KALEA	Zenbakiak: 13 - 39 eta 20 - 36
TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUAREN KALEA	Zenbakiak: 23 - 35 eta 32 - 76
BUZTINZURI KALEA	Zenbakiak: 1 - 3 eta 4 - 14
GASTEIZ HIRIBIDEA	Zenbakiak: 5 - 69
GERARDO ARMESTO PLAZA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 4
JOSE LUIS GONZALO-BILBAO ZIDORRA	Zenbakiak: 1 - 9

KALKUTAKO TERESA	
MEDITERRANEOAREN HIRIBIDEA	Zenbakiak: 2 - 6
MIREN MARTINEZ SAEZ DEL BURGO	
PEDRO ASUA KALEA	Zenbakiak: 3 - 77
ADRIAN ALDEKOA MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 8
AURELIO VERA-FAJARDO MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 22
CARLOS SAEZ DE TEJADA MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 4 - 12
CLEMENTE ARRAIZ MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 3 - 9 eta 4 - 12
GUSTAVO MAEZTU MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 2 - 10
IGNACIO DIAZ RUIZ DE OLANO MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 24
JESUS APELLANIZ MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2
JUAN ANGEL SAEZ MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 2 - 16
MAURO ORTIZ DE URBINA MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 15 eta 6 - 16
OBDULIO LOPEZ DE URALDE MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 19 eta 2 - 22
PABLO URANGA MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 22
TEODORO DUBLANG MARGOLARIAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 53
RICARDO SACRISTAN KALEA	Zenbakiak: 30 - 40
SALVADOR AZPIAZU IBILBIDEA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 16
BALENTIN BERRIOTXOA	
JESUSEN BIHOTZEKO SANTA MARIA JOSEFA	
SERAFIN AJURIA KALEA	Zenbakiak: 7 - 13 eta 2 - 6
TOMAS ALFARO KALEA	Zenbakiak: 1- 17 eta 2

II. eranskina

0C eta 1D zonetako atarien zerrenda aldatzea, 2027ko irailaren 15etik aurrera TAO aparkatze-bereizgarriak emateko, egun horretan EGEaren bigarren fasea ezartzearen ondorioz:

0C Zona

ALDABE KALEA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 34
ANORBIN KANTOIA	Zenbakiak: 1 - 9
BADAIA KALEA	Zenbakiak: 1 - 23 eta 2 - 18
TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUAREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 18
ZERKABARREN KALEA	Zenbakiak: 1 - 35 eta 2 - 30
PEÑAFLORIDAKO KONDEAREN PLAZA	Zenbakiak: 1
HEDEGILE KALEA	Zenbakiak: 1 - 157 eta 2 - 124
ARABAKO FORU ALDUNDIA	Zenbakiak: 1 - 21 eta 2 - 18
EULOGIO SERDAN KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 4 - 12
EULOGIO SERDAN PASABIDEA	Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 4
FELIX MARIA SAMANIEGO KALEA	Zenbakiak: eta 4 - 14
AHATE ITURRI PLAZATXOA	Zenbakiak: 2
JESUSEN ZERBITZARIEN FUNDATZAILEA	Zenbakiak: 1 - 53 eta 4 - 40
ERREMENTARI KALEA	Zenbakiak: 1 - 41 eta 2 - 108
JOAQUIN JOSE LANDAZURI KALEA	
KUTXA KALEA	Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 6
UHASKA ZAHARREKO KALEA	Zenbakiak: 1 eta 2
PROBINTZIA PLAZA	Zenbakiak: 1 - 15 eta 2 - 16
BAKARDADE KANTOIA	Zenbakiak: 1 - 5
HARATEGI KANTOIA	Zenbakiak: 2
MAGDALENA KALEA	Zenbakiak: eta 2 - 16
MANUEL DIAZ DE ARKAIA KALEA	Zenbakiak: 1 - 7 eta 2 - 12
ALAMEDAKO MARKESAREN PLAZA	Zenbakiak: 1
PEDRO EGAÑA KALEA	Zenbakiak: 2 - 4
ARRIAGAKO ATEA	Zenbakiak: 1 - 9 eta 2 - 12
SAN PEDROKO PASABIDEA	Zenbakiak: 1 - 7
SAN ROKE KANTOIA	Zenbakiak: 2

VICENTE GOIKOETXEA KALEAN

Zenbakiak: 1 - 15 eta 2 - 10

ZAPATARI KALEA

Zenbakiak: 1 - 101 eta 2 - 110

1D Zona

BADAIA KALEA

Zenbakiak: 23 - 37 eta 20 - 26

BASOA KALEA

Zenbakiak: 1 - 15 eta 2 - 14

BASTITURRI KALEA

Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 4

TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA

Zenbakiak: 5 - 21 eta 20 - 30

BEETHOVEN KALEA

Zenbakiak: eta 2 - 12

BRUNO VILLARREAL KALEA

Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 16

ANDRE MARIA ZURIAREN KOROATZEA

Zenbakiak: 1 - 23 eta 2 - 28

GURUTZE ZURIKO KALEA

Zenbakiak: 1 - 11 eta 2 - 8

DOMINGO BELTRAN DE OTAZU

Zenbakiak: 1 - 47 eta 2 - 50

EULOGIO SERDAN KALEA

Zenbakiak: 13 - 25 eta 14 - 22

FRANCISCO JUAN AIALA PLAZA

Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 4

GASTEIZ HIRIBIDEA

Zenbakiak: 46 - 90

GORBEIA

Zenbakiak: 1 - 41 eta 2 - 54

JULIAN APRAIZ KALEA

Zenbakiak: 1 - 13 eta 2 - 18

ZIUDADELA PLAZA

Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 4

KONSTITUZIO PLAZA

Zenbakiak: 1 - 1 eta 2 - 2

LOVAINA PLAZA

Zenbakiak: 1

NAVARRO VILLOSLADA KALEA

Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 12

PASCUAL ANDAGOIA PLAZA

Zenbakiak: 1 - 3 eta 2 - 4

ARRIAGAKO ATEA

Zenbakiak: 11 - 21 eta 14

RAMIRO MAEZTU KALEA

Zenbakiak: 1 - 5 eta 2 - 6

RAMIRO MAEZTU PASABIDEA

Zenbakiak: 1 - 5 eta 2 - 8

RICARDO BUESA KALEA

ANTSO JAKITUNA

Zenbakiak: 1 - 29 eta 2 - 26

SANTO DOMINGO PLAZA

SIMON ANDA KALEA

Zenbakiak: 1 - 29 eta 2 - 14

LARRUGILE KALEA

Zenbakiak: 1 - 19 eta 2 - 20

ZALDIARAN PLAZA

Zenbakiak: 1 - 15 eta 2 - 16

III. Eranskina**Aparkaldi komertzialaren bereizgarritako — aurreikusitako epigrafeen zerrenda**

- 41 Elikagai eta edari industriak (419)
- 46 Zura, kortxo eta zurezko altzari industriak (462, 463, 464, 465, 467 468)
- 61 Handizkako merkataritza (612, 613, 614, 615, 617)
- 64 Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako, salmenta, betiko establezimenduetan egiten denean
- 65 Establezimendu iraunkorretan eginiko produktu industrial elikadurarakoez bestekoen txikizkako merkataritza
 - 652 Sendagaien eta farmazi ekoizkinen txikizkako salmenta; drogeria eta garbiketarako artikulua en txikizkako salmenta; lurringintza eta era guztietako kosmetikoen; oro har kimika ekoizkinena, eta belar dendetako belar eta landareen txikizkako salmenta (6522: tindategiak, garbategiak)
 - 659 Bestelako txikizkako saltokiak (6592: Bulegoko altzarien eta bulegoko makina-eta ekipoen txikizkako merkataritza, 6593: Ortopediak, 6597: Hazien, ongarrien, lore eta landareen nahiz animalia txikien txikizkako merkataritza).
- 69 Konponketak (692, 699: Beste inon sailkatu gabeko bestelako konponketak)
- 85 Ondasun higigarrien alokairua (851, 852, 853)
- 92 Beste zerbitzu batzuk (922)

Gremio profesionalen eta/edo langile autonomoen kolektiboarentzako bereizgarria — aurreikusitako epigrafeen zerrenda

Gasteizko udalerrian kokatutako enpresa-jarduerari emango zaie halako bereizgarria, baldin eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) epigrafe hauetakoren batean alta emanda badaude:

- 244 Izadiko harriaren industriak
- 314 Egituretarako produktu metalikoen fabrikazioa (3141)
- 501 Eraikuntza eta obra zibila (5011, 5013)
- 504 Instalazioak eta muntaiak (5041, 5042, 5043, 5044, 5045, 5046, 5047)
- 505 Obren amaiera (5051, 5052, 5053, 5055, 5056, 5057)
- 653 Txikizkako salmenta (6531, 6532, 6533, 6534, 6535, 6536)
- 691 Etxerako artikuluen eta beste ondasun batzuen konponketa (6911, 6919)

Eranskin honetan zedarritutako epigraferen batean alta emanda ez dauden enpresa- edo merkataritza-jarduerak, baldin eta merkataritza edo gremio

profesionalen zein langile autonomoen kolektiboaren TAO bereizgarria behar badute, beharra justifikatzeko eskaera aurkeztu ahal izango du, eta Udalak erabakiko du dagokion bereizgarria eman ala ez.